



MUTRIKUKO UDAL HILERRIAREN ARAUDIA

AURKIBIDEA

- ATARIKO KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK (1-8 art.)
- LEHENENGO KAPITULUA. HILERRIKO ERREGISTRO PUBLIKOA. (9-10 art.)
- BIGARREN KAPITULUA. ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUAREN ERREGIMENA (11-24)

Lehenengo atala. Xedapen orokorrak.

Bigarren atala. Ehorzketak.

Hirugarren atala. Ehortz-lekutik ateratzeak eta berrehorzketak.

- HIRUGARREN KAPITULUA. EHORZKETA ESKUBIDEA. (25-40 art.)

Lehenengo atala. Xedapen orokorrak.

Bigarren atala. Ehorzketa eskubidea izatea.

Hirugarren atala. Ehorzketa eskubidea iraungitzea.

- LAUGARREN KAPITULUA. ESKUALDAKETAK (41-44 art.)

- BOSTGARREN KAPITULUA. ERAIKUNTZAK (45-50 art.)

- SEIGARREN KAPITULUA. HILERRIKO LANGILERIA(51 art.)

XEDAPEN GEHIGARRIA

XEDAPEN IRAUNKORRA

Lehenengoa.

Bigarrena.

Hirugarrena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA



Mutrikuko Udala

ATARIKO KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

1. Mutrikuko udal hilerria jabari publikoko ondasuna da zerbitzu publikoari lotua, Udalaren titularitatekoa. Udalari dagokio hilerria administratzea, zaintzea eta zuzentzea, beste autoritate zein erakunde batzuen eskumen diren gaitan izan ezik.
2. Astigarribiako hilerria araudi hau aplikagarria izango zaio duen egoerak ahalbidetzen dituenetan.

2. artikulua.

Herri jabari eta/edo herri zerbitzuko arauak, Osasun eta Hileta araudiak, Udal Ordenantza Fiskalek eta Erregelamendu honek arautuko dute hilerriaren erregimen juridiko eta administrazioa.

3. artikulua.

Udalaren eskumenekoak izango dira hurrengoak:

- a) Hilerriaren administrazioa, antolakuntza, zaintza, ustiaketa, ordenua eta polizia zaintzea eta mantenua nahiz txukuntasuna, baita hilerriko udal eraikinena, zerbitzu orokor eta instalazioena, bideena, estolderi sarearena, argiteriarena, zuhaitzi eta lorategiena, eraikin eta hilerrian interes orokorreko gerta litekeen guztiarena ere.
- b) Ehorzketa, ehorts-lekutik ateratzea, hilerri barruan lekualdatzea, hilotz eta gorpuzkinak gordetzea eta murriztea eta hilerrietako osasun gaitan indarreko legeriak eskatzen duen gainerako beste edozein jardun.
- c) Ehorzketa eskubideak eman, adierazi eta aldatzea, horien onuradunak nortzuk diren izendatzea eta horiei dagozkien agiriak izapidetu eta eskuratzea.
- d) Hilobien, panteoien eta kolunbarioen emakidak eratu, izapidetu eta, hala dagokionean, bukatutzat ematea.
- e) Dagokion Ordenantza Fiskalean legez ezarritako eskubideak eta tasak kobratzea.
- f) Hilerriaren barne erregimena eta bertako hilotzak garraiatzea.
- g) Orain arte hartu diren edo aurrerantzean hartuko diren osasun eta garbitasun neurriak betetzea.
- h) Honelako instalakuntzen ohizko jardueri ez dagozkien ekintzak burutzeko ezohizko baimenak ematea, gainerako erabiltzaileei zor zaien errespetua gordearaziz.
- i) Herritarrek hilerrian edozein lan edo instalazio egin nahi dutenean, horretarako baimena ematea eta zuzendaritza zein ikuskatze lana egitea.
- j) Hilerriaren jabe titularra eta herriko jarduerak araupetzen dituen erakunde publikoa izanik, berari dagokion beste edozein funtzio betetzea.

4. artikulua.

Gobernazio udal batzorde informatzaileak edo honn funtzioak burutzen dituenak egoki iritzitako proposamenak egingo ditu hilerriaren administrazioa eta zerbitzu publikoaren emakida burutzeko. Hala beharko balitz, planteatutako gaia erabakitze organo eskudunak egindako edozein kontsultaren aurrean, udal batzorde honek emango du irizpena.

5. artikulua.

Hilerrian honako dependentziak izango dira: Kapera, panteoiak, hobiak, kolunbarioa, hezurtegia, erraustegia, aldagelak, pertsonalarentzako komuna eta desinfektatzeko gunea, larrialdietarako botikina



Mutrikuko Udala

eta komun publikoak. Udalak, zerbitzua behar berriei egokitzearren, dependentziak handitu, txikitu, aldatu edo sortu ahal izango ditu.

6. artikulua.

Pertsona guztien eskubidea izango da hilerrian ehorzketa duina izateko, sexu, arraza, pentsakera, erlijio edo maila pertsonaleko edota sozialeko beste arrazoi batek baztertuta izan gabe.

7. artikulua

1. Hilerrian pertsonen arteko eta beraien sinismenarekiko begirunea zaindu beharko da. Galerazita dago printzipio hori betetzen ez duen edozein jokabide.

Era berean, horretarako dauden pasabideetatik bakarrik ibili behar da, hilobien esparruan sartu gabe.

2. Debekatuta dago ibilgailu motordunak nahiz motorrik gabeak sartzea edo bertan ibiltzea, elbarrienak edo araudi honetan aurreikusitakoak izan ezik.

3. Debekatuta dago animaliak sartzea.

8. artikulua.

Debekatuta dago hilerriaren esparruan edozein merkataritza-jarduera burutzea, eta kanpoaldean salmenta ibiltariaren araudiari lotuko zaio.

LEHENENGO KAPITULUA HILERRIKO ERREGISTRO PUBLIKOA

9. artikulua

Hilerriko hilobiak eta hilerrian egiten diren eragiketak jasoko dituen Errolda Publikoa izango da. Errolda Publiko honek honako liburuak izango ditu:

- a) Hilobien, panteoien eta kolunbarioen Errolda Orokorra.
- b) Ehorzketenak.
- c) Ehortz-lekutik ateratzeena eta tokiz aldatzeena.
- d) Jakinarazpenen sarrera-irteerena.
- e) Era berean, Erreklamazio-liburua izango da.

10. artikulua

Hilobien, panteoien eta kolunbarioen Erregistro Orokorreko liburuak, gutxienez, honako datuak jzasoko ditu:

- a) Hilobi, panteoi eta kolunbario bakoitzaren identifikazioa, hala badagokio, dituen atalen kopurua adieraziz.
- b) Kontsezioaren data eta, hala balegokio, eraikitzeko obren altarena.
- c) Titularren edo titularren izen-abizenak eta helbidea. Titularrak bat baino gehiago badira, kontsezioaren ondorioetarako, ordezkariarenak.
- d) Mortis causa egindako eskualdaketak.
- e) Ehorzketak, ehortz-lekutik arteratzeak edo gerta litezkeen lekualdaketak, izen-abizenak jakinarazita.
- f) Ehortz-tokiari eragin diezaiokeen beste edozein gorabehera.



Mutrikuko Udala

BIGARREN KAPITULUA ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUAREN ERREGIMENA

Lehenengo atala. Xedapen orokorrak.

11. artikulua

Udalak hilerrietako Osasun eta Hileta araudiaren, ehorzketen eta hileta zerbitzuen alorrean indarrean dagoen araudia betearaziko du.

12. artikulua.

Hilerria goizeko hamaiketan zabalduko da eta arratsaldeko seiak arte egongo da zabalik. Hala ere, ordutegi hori aldatu egin ahal izango da egun jakinetan edo arrazoi bereziak direla eta. Igande eta jai egunetan ez da ehorzketarik eta ehortz-lekutik ateratzerik izango.

Bigarren atala. Ehorzketak.

13. artikulua.

1. Ehortzeko ematen diren gorpu guztiak ehortziko dira hilerrian, lege izapideak bete ondoren. Udal ordenantza fiskalean jasotako ehorzketa eskubideak ordaindu beharko dira. Zerbitzua ematen duen pertsonalari ez zaio inola ere ezer ordainduko.
2. Ehorzketak lur-hobietan edo panteoietan egin ahal izango dira. Horien guztien ezaugarriak indarrean dagoen Osasun eta Hileta Erreglamenduak ezarriko ditu.
3. Errausteen kasuan, errauts-kutxak dagozkien kolunbarioetan ipini ahal izango dira.

14. artikulua.

1. Ehortzeko ezinbesteko baldintza izango da heriotzaren unetik behaketa arauzko epea igaro izana. Hori horrela dela Epaile eskudunak baimendutako ehortzeko eginduekin ziurtatuko da.
2. Gorpua aurkezten duen pertsona fisikoak edo entitateak zerbitzua ematearen arduradunari eskatutako dokumentazioa eman beharko dio ehorzketa egin ahal izateko.
3. Arau orokor moduan, gorpua ezin izango da era naturalean usteltzea galaraziko duen ezertan bildu.

15. artikulua.

Ehortzia izateko, aurreko baldintzez gain, ondoren adierazten diren baldintza hauetariko bat betetzen badu, gutxienez:

- a) Mutrikun jaioa izatea.
- b) Udalerrri honetan erroldatuta dagoen pertsona izatea.
- c) a) eta b) atalean aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen aurreko edo ondorengo zuzenak zein zehar-ahaideak izatea.
- d) Pertsona Mutrikun hil izana.
- e) Mutrikuko udalerrian hildako pertsona behartsuak izatea.
- f) Udalak Ebazpen berezi baten bidez onar lezake baldintza hauek betetzen ez dituzten gorpuen ehorzketa, egoera eta behar ezhoizkoak kontuan hartuta.

16. artikulua.

Udalak zerbitzuaren funtzionamendu egokienari begira ezarriko ditu ehorzketa orduak. Gorpua aurkezten duenak zerbitzua ematearen arduradunari eskatu beharko dio ehorzketa ordua.



17. artikulua.

1. Panteoian egindako ehorzketa bakoitza egin bezain laster bere harlauza itxiko dute zerbitzu horretaz arduratzen diren langileek, eta harlauza hori egoera txarrean egoteagatik kalterik sortuko balitz, ez litzateke inolako erantzukizunik hartuko.
2. Onartutako edozein panteoitari egin beharreko edozein ehorzketa, kontzesioaren titularrak berak edo ordezkariak onartu beharko du alde zuzenetik.

18. artikulua.

Ehorketak hilobietan egiten direnean, horien neurriak eta ezaugarriak Osasun eta Hileta Erreglamenduak horri buruz ezarritakoari lotuko zaie.

19. artikulua.

1. Hilobiak elkarren segidan zenbatuko dira, eta ehorzketak horren arabera egingo dira.
2. Hobiak taldeka sailkatuta egongo dira, eta taldeak lerroka; lerro bakoitzean dagokien zenbakia izango dute hobiak.

20. artikulua.

1. Hilobiak estaltzen dituzten hilarrien edo plaken ezaugarriak ordenantza honetan eranskin gisa jasotako ereduari lotuko zaizkio. Zehaztapen hau ez betetzeak Mutrikuko Udalari ahalmena emango dio apaintura arrazoiengatik exekuzio agindua emateko.
2. Udalak erosi eta ipiniko ditu harlauzak, eta kontzesio-eskubideari dagozkion gastuak interesatuaren kontura izango dira, indarrean dagoen Ordenantza arautzailearekin bat etorrira.
3. Hilobi bakoitzean gorpu bakarra ehortzi ahal izango da.
4. Aurreko paragrafoetan adierazitakoari kalterik sortu gabe, hilarria ezin izango da ipini hilerriko arduradunak berariaz adostasuna eman arte.

21. artikulua.

Hilobiaren gaineko kontzesio eskubidea eskuratzeko, aurrez kanona ordaindu beharko da, dagokion Ordenantza Fiskalak horri buruz ezartzen duenarekin bat etorrira.

Hirugarren atala. Ehortz-lekutik ateratzeak eta berrehortzeak.

22. artikulua.

Gorpuak eta gorpuzkinak ehortz-lekutik ateratzea une bakoitzean indarrean dagoen Osasun eta Hileta araudiaren arabera egingo da, pertsonalaren segurtasunerako behar diren neurri guztiak hartuta.

23. artikulua.

Ehorzketak eta gorpuak, gorpuzkinak zein gorpuzkinen erredukzioak ehortz-lekutik ateratzeko eta lekuz aldatzeko lanak hilerrian jende gutxien dabilen orduetan egingo dira eta Osasun Ikuskaritzak esku hartu beharko balu, hilerriko Arduradunarekin adostuko litzateke ordua.

24. artikulua.

Lurreko hobietan ehortzitakoentzat zehaztutako legezko epea igarotakoan eta Araudi honetan Osasun eta Hileta Araudian ezarritako izapideak burutu ondoren, gorpuzkinak atera eta hezurtegitara eramango dira, baldin eta senitartekoek beste leku batera eramateko eskatzen ez badute.



Mutrikuko Udala

HIRUGARREN KAPITULUA EHORZKETA ESKUBIDEA

Lehenengo atala. Xedapen orokorrak.

25. artikulua. Ehorzketa eskubidea.

1. Ehorzketa eskubideak titularrari ahalmena ematen dio hilerrian izendaturiko hilobia edo panteoia edukitzeko eta erabiltzeko, tituluaren adierazitako epean. Barne hartzen ditu lurraren erabilera eta gorpuak edo giza gorpuzkinak ehorzteko, zaintzeko edo gordetzeko jasotako eraikinak berak, lurra beste edozertarako erabiltzerik izan gabe.
2. Udalak emango du, berea izanik jabetza-titularitatea.

26. artikulua. Ehorzketa eskubidea eskuratzea.

1. Aurrez horretarako eskakizunak bete ondoren, honako hauek izango dute hilobiak erabiltzeko eskubidearen titularitatea:
 - a) Esleipen-eskaera egiten duen pertsona fisikoa.
 - b) Ezkontideak, beraien erregimen ekonomikoa kontuan izan gabe.
 - c) Administrazioak hala onartutako erlijio komunitateak edo onegintzako etxeak, beraien kideek eta abegi hartutakoek bakarrik erabiltzeko.
 - d) Legez osatutako Korporazioak, Fundazioak edo Erakundeak, beraien kideek bakarrik erabiltzeko.Inola ere ezin izango da ehorzketa eskubidea merkataritza entitateen izenean erregistratu; bereziki beren bazkideei, beste gabe edo beste arrisku batzuen osagarri gisa, hiltzen direnerako ehorzketa eskubidea ziurta diezaieten Aseguru konpainia, Prebisio konpainia edo antzerakoen izenean.
2. Ehorzketa eskubidearen tituluaren barne dauden eskubideak bere titularrari dagozkio, ez besteri.
3. Goiko b) atalean azaldutako ustezkoan, ezkontide bietako edozeinek izango du ehorzketa eskubidea.
4. Goiko c) eta d) ustezkoetan, ehorzketa eskubidea estatutuen arabera horretarako ahalmena ematen zaion kargua duen pertsonak erabili ahal izango du, eta horrela ez baldin bada, Lehendakariak edo maila handieneko kargua duenak.

27. artikulua.

Hilobian egindako ehorzketei dagokienez, ehorzketa eskubidea heriotzeko orduan eta gorpuak edo gorpuzkinak lekualdatzeko orduan eskuratu ahal izango da, ez beste inoiz.

28. artikulua.

Panteoiak erabiltzeko kontzesioa lehiaketa publiko bidez egingo da, dagozkien pleguetan ezartzen diren baldintzen arabera. Horiek, ezinbestez lotuko zaizkio Araudi honetan xedatukoari.

29. artikulua.

Ehorzketa eskubidearen kontzesiorako tituluak honako datu hauek izango ditu:

- a) Hilobiaren edo panteoiaren identifikazioa.
- b) Hasieran ordaindutako zergak.
- c) Esleipenaren data, horren izaera eta, hala badagokio, zenbat departamentuz osatuta dagoen eta hilobiaren eraikuntzaren azken ziurtagiria.
- d) Titularraren edo titularren izen-abizenak eta Udalaren aurrean ordezkaturiko dituenarenak.



Mutrikuko Udala

- e) Ehortzi, ehorts-lekutik atera edo lekuz aldatuko diren gorpuen izen-abizenak eta sexua eta ekintza horiek burutu diren data.
- f) Usufruktuariorik baldin badago, horren izena.

Bigarren atala. Ehorzketa eskubidea baliatzea.

30. artikulua.

1. Gorpuen ehorzketarako egokituriko hilobien erabilera une bakoitzean aplikagarria den Osasun eta Hileta Araudiak zehazten duen aldirako emango da, ehorzketa egindako egunetik hasita; ezin izango da luzapenik eman. Epea amaitzean, gorpuzkinak murriztu eta hezurtegira eramango dira. Epea amaitu aurreko hiru hilabeteetan beste ehorzleku batera aldatzeko eskatzen bada, dagozkion Ordenantza Fiskaletan zerbitzu horretarako zehazten diren zergak ordaindu ondoren egingo da lekualdaketa.
2. Hilobiak erabiltzeko baimenak ematerakoan hurrenkera jarraituko da, beraz ezinezkoa izango da hutsik dagoen beste edozein hilobitan ehorzteko eskatzea.
3. Kontzesioaren egiaztagiri gisa Udaletxean emango den dokumentazioan zehazki azalduko da hilobiari dagozkion taldea, lerroa eta zenbakia, baita kontzesioaren amaiera data ere.
4. Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei hilobietan egindako ehorzketentzat Osasun eta Hileta Araudiak ezartzen duen gutxieneko iraupena duen kontzesioa bermatuko zaie, eta beste guztiek duten tratamendu bera izango dute.

31. artikulua

1. Panteoien erabilerarako kontzesioak berrogeita hamar urteko epea izango da. Epe hori, gehienez, berrogeita bederatzita urteko beste epe berri baterako luzatu ahal izango da, kontzesiodunak edo horren ordezkariak eskatuta, horretarako eskumena duen Udal Organoak hartutako erabakiaren bidez eta dagozkion zerga ordainduta.
2. Araudi hau indarrean jarri aurretik egindako kontzesioen emakida-akordioan aurreko paragrafoan ezarritako epearen ordezkari beste bat finkatuko balitz, epea emakida hori onartzen den egunetik kontatuko litzateke.
3. Kontzesio horiek betiko emanak balira, horien iraupena gehienez laurogeita hemeretzi urtekoa izango dela ulertuko da, egin den edo egingo den lehenengo titularitate aldaketatik kontatuta, eta epe hori amaitzean luzatzeko inolako eskubiderik gabe.
4. Bestalde, emakidarako erabakian eperik jarri gabeko kontzesioak daudela kontuan izanik, berrogeita hamar urteko epe hori 1998ko urtarrilaren 1etik kontatuko da.

32. artikulua.

1. Kontzesioekin batera, ondoko betebeharrak hartuko dira:
 - a) Dagozkion hilobia adierazten diren higie-, kontserbazio-, apaindura- eta estetika-baldintzetan edukitzea. Hilerriaren gaur egungo estetika hausten duen elementurik ez eranstea. Hortaz, hilarriak, harlauzak, itxiturak eta gainerako apaingarriak gaur egungoen irizpide estetikoei jarraitu beharko diete eta biharko egunean udalak ezar litzakeenei.
 - b) Kontzesioaren bukaeran titularrek kendu egin beharko dituzte apaingarriak, bestela udalak erabakiko du horiekin zer egin, erreklamaziorako edo kalte-ordainetarako eskubiderik izan gabe. Hileta-inskripzioak bat etorriko dira hilerriaren eginkizunari zor zaion errespetuarekin.
 - c) Aplikagarria den Ordenantza Fiskalean zerbitzua emateagatik ezartzen diren eskubideak edo tasak ordaintzea.
2. Panteoiak erabiltzeko kontzesioetan, kontzesiodunaren ardurara izango da ehorzketa berriak egiteko tokia edukitzea, panteoia betetzear dagoenean gorpuzkinak garbitu behar izanik.



3. Aurreko ataletako betebeharez gain, kontzesiodunek errespetatu egin beharko dituzte Udalak edo eskumena duten beste administrazioek edo entitateek eman ditzaketan xedapenak.

33. artikulua.

1. Edozein arrazoi dela eta hilerria itxiko balitz, kontzesiodunek ez lukete eskubiderik izango kontzesioaren xede diren lurrengatik edota eraikuntzengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko.

2. Udalak, hilerria eraberritu behar duelako edo ixteko erabakia ez den beste edozein arrazoiengatik, panteoi edo kaperaren bat emakidaren epea amaitu baino lehen ezabatu beharko balu, kontzesiodunari beste toki batean beste bat emango lioke epea amaitu bitarteko denboraldirako.

34. artikulua.

Hilarriak, gurutzeak edo beste edozein hileta-ikur, erabiltzaileek landatutako landare eta lore apaingarriak, eta hilobiak mugatzen dituzten elementuak kontzesiodunarenak izango dira. Horiek lapurtuko balira edo kalterik jasoko balute, Udala ez litzateke erantzule izango.

35. artikulua.

Titularitate anitza ematekotan, pertsona bakarrak ordezkatzeko ditu besteak Udalaren aurrean ondorio fiskaletarako, jakinarazpenetarako eta abarretarako. Ordezkar hori espedientean jasotako titular guztiek izendatuko dute, aurrez beraien artean hartu eta udalari berariaz jakinarazitako akordioaren bitartez. Akordiorik ezean, titularren udalaren aurreko ordezkaritza indarrean dagoen Administrazio Prozedurari buruzko Araudiaren arabera erabakiko da.

36. artikulua.

Titularitate anitza ematekotan, ehorzketa eskubidetik eratorrita edozein titularrek emandako erabilpen baimena izango da balioko.

37. artikulua.

Kontzesiodunek eskatzen badute eta egoeraren arabera, ehorzketa eskubideen aurre itzulketa onartzeko askatasun osoa izango du Udalak, une horretan indarrean dagoen Ordenantzak finkatutako balioaren portzentajea ordainduz. Portzentaje hori, kontzesioaren epea amaitzeko geratzen den denboraldiaren araberrako beheranzko parekotasunean finkatuko da, luzapenik sartu gabe eta %50eko gehienezko mugapean, apaingarriengatik edo egindako eraikuntzengatik ezer ordaindu gabe, eta itzulketa horrek sortutako gastuei dagokiena kenduta.

Hirugarren atala. Ehorzketa eskubidea iraungitzea.

38. artikulua.

Emandako ehorzketa eskubidea iraungitzat jo eta berriro Udalaren eskuetara itzuli ahal izango da ondoko kasuetan:

- a) Titularrak edo bere oinordekoek uko egin diotelako.
- b) Eraikina hondatu delako, norberarena denean.
- c) Hilobia zaindu gabe, zikin eta hondatuta dagoelako.
- d) Aldi baterako ehorzketa eskubidea amaitu delako.
- e) Epea amaitu arren, ordainketaren bat egin ez delako.
- f) Emakidan adierazten den epea eta bere luzapena amaitu direlako.
- g) Titularra hil zenetik 10 urte igaro eta onuradun edo oinordekoek eskubidea erreklamatu ez dutelako.
- h) Arauz kontrako emakida delako edota Araudi honetan ezarritakoa bete ez delako.



i) Araudi honen arabera dagozkion tasak ez ordaintzeagatik betearazpen bidea agortu delako.

39. artikulua.

Iraungitze espediente administratiboa jarraian adierazitako moduan izapidetuko da:

1. Iraungitzea eraikin partikularren hondamen egoeragatik gertatu bada, espedienteen jasoko da titularrari edo titularrei Udalaren aurrean duten ordezkariaren bidez eta hilobien, panteoien eta kolunbarioen Erregistro Liburuan agertzen den helbidean egindako zitazioa, eta hogeita hamar eguneko epea utziko zaie beraiek edo onuradunak, oinordekoak edo hartzaileak eta legezko interesatu direnak espedienteen ager daitezen. Aipatutako edonork horretarako epearen barruan eraikuntza edo konponketa lanak egiteko konpromisoa hartuko balu, espedientea eten egingo litzateke epearen amaiera arte, eta orduan, egindako obren berri emango luke udal zerbitzu teknikoak. Horiek ontzat ematen badira, espedientea inolako beste tramiterik gabe artxibatu egingo da, eta horrela izan ezean iraungitza joko da.

Halaber, iraungitza emango da hogeita hamar eguneko epea amaitzean titularrak, onuradunak, oinordekorik edo hartzaileak bere eskubidea alegatuz agertzen ez bada.

2. Aurreko artikuluko gainontzeko balizko kasuetan, c) eta d) ataletakoetan izan ezik, iraungitzeko espediente administratiboa izapidetzeko titularrari edo titularrei deitu besterik ez zaie egingo Udalaren aurrean duten ordezkariaren bidez, eta zortzi eguneko epea utziko zaie ordainketa eguneratzeko edo luzapena eskatzeko, luzapen hori eman daitekeenean; epe hori amaitzean xedea bete gabe balego, emakida iraungitza jo eta hondakinak hezurtegi orokorrera eramango lirarteke.

3. Aurreko artikuluko c) eta d) balizko kasuetan, titularrari edo titularrei eskatuko zaie, Udalaren aurrean duten ordezkariaren bidez eta hilobien, panteoien eta kolunbarioen Erregistro Liburuan agertzen den helbidean, gorpuzkinak hezurtegiara eramane ditzatela. Titularrak agertzen ez bada, eskubide horiek iraungitzeko espedientea hasiko da, artikuluko honen 1. atalean aurreikusitakoaren arabera.

4. Ehorzketa eskubideak iraungitza jo ondoren, Udalak eraikuntzak desegin eta hilobietan dauden gauza guztiak ken ditzake, gorpuzkinak balego, horiek hezurtegiara eramane, eta emakidaren titularrak ezingo luke inolako kalte-ordainik eskatu.

LAUGARREN KAPITULUA ESKUALDAKETAK

40. artikulua.

Erabat debekatuta dago hilobiak, panteoiak zein kolunbarioak saltzea eta beste edozein irabazi-jarduera.

41. artikulua.

Hilobien, panteoien edo kolunbarioen erabilerarako kontzesioaren titularitatea inola ere ezin izango da bizidunen artean laga; heriotzagatik baino ezin izango da transmititu, eta beti ere kontzesio epearen barruan. Salbuespen gisa, 43. artikuluan aurreikusitako ustezkoan eskualdatu ahal izango da.

42. artikulua.

1. Hala ere, ehorzketa eskubidearen titularrak edozein unetan izendatu ahal izango du bera hiltzen denerako hilobiaren onuraduna. Onuradun izaera hori ezkontideetara, aurreko eta ondorengo zuzenetara eta bigarren maila bitarteko zehar-ahaideetara mugatuko da. Bestelako kasuetan, Udal honek, egoera zehazki aztertu ondoren, aipatutako izendapena baimendu ahal izango du.



2. Onuradunen izendapen baten ondorengo testamentu klausularen bat balego, testamentu horrek aurreko izendapena indarrrik gabe utziko luke.
3. Berariaz izendatutako onuradunik ezean, ehorzketa eskubidearen titularitatea titularraren testamentuko oinordekoei transmitituztat joko da, eta horrelakorik ezean Legeria Zibilean aurreikusitako oinordekotza-ordenan transmitituko da.
4. Oinordeko bat baino gehiago izendatuko balira, edo, hala balitz, abintestatoz, hauen titularitatea jasoko litzateke eta elkarrekin adostuta izendatu beharko lukete Udalaren aurreko ordezkaria; adostasun hori lortuko ez balitz, indarrean dagoen Administrazio Prozedurako Araudiaren arabera erabakiko litzateke Udalaren aurrean ordezkari izango denaren izendapena.
5. Ehorzketa eskubidearen titularra hiltzean, izendatutako onuradunak, testamentu bidezko oinordekoak edo testamenturik gabe dagokienak behartuta daude haien izenean geratutako kontzesioaren transmisioa eskatzera, eta dagokion kontzesioaren titulua eta transmisioa egiaztatzen duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte urtebeteko epean, bestela, kontzesioa iraungi egingo da.

43. artikulua.

Ehorzketa eskubidea, doako lagapena izanda, bizien artean eskualdatzea onartuko da honako kasuetan:

- a) Titularren senideen alde, laugarren maila arte zuzenekoei eta zeharrekoiei dagokienez, biak ere odolkidetasunez, eta, afinitatez, bigarren maila arte.
- b) Ezkontidearen eta eskualdatu aurretik jabearekin gutxienez hamar urtean bizi izan direla egiaztatzen duten lagunen alde.

2. Doan laga ahal izateko, Udalak baimena eman beharko du, eskubidearen indarraldia amaitzeko zenbat denbora falta den eta tituluetan ordenantzaaren arabera jaso beharreko gainerako baldintzak eta datuak jasota.

BOSTGARREN KAPITULUA ERAIKUNTZAK

44. artikulua.

1. Hilobien gaineko harlauzetan zein hilarrietan eta panteoietan edozein obra egiteko udal baimena behar izango da.

Debekatuta dago zuhaitzak, zuhaixkak, bestelako landareak, eta antzekoak landatzea.

2. Interesatuak Alkateari zuzendutako eskaera aurkeztuko dute, eta, horrekin batera, egin nahi dituzten obrei dagokien proiektua edo deskribapena eta aurrekontua, edo eraiki nahi denaren xehetasun grafikoak.

Udal Zerbitzu Teknikoak obra horiek emandako baimenaren arabera egin diren egiaztatuko du.

45. artikulua.

Ezin izango da inolako obrarik hasi dagokion Ordenantza Fiskalak zehaztutako zergen ordainketa dagokion ordenantza fiskalaren arabera egin gabe.

Emandako baimena frogatu ahal izateko, noiznahi eskatu ahal izango da horren agiria erakusteko.

46. artikulua.

Hilobien gaineko nahiz panteoietako harlauza zein hilarriak egiteko, material nobleak erabiltzea exijituko da.



Mutrikuko Udala

47. artikulua.

1. Obrak egiteko baino ezin izango dira sartu ibilgailuak, eta horretarako, hilerriko arduradunaren baimena beharko da.
2. Edonolako obrak amaitu ondoren, eraikitzaileek edo kontzesiodunak kendu egin beharko dituzte bertan geratutako material hondarrak, lurrak, harriak, hondakinak, eta, orokorrean, erabilitako edozein materialen hondarrak.
3. Era berean, ibilgailuekin edo beste tresnaren batekin, kale, lorategi edo eraikuntzetan eragindako kalteak konpontzera behartuta egongo dira.

48. artikulua.

Obren jabe, arduradun eta langileek beren lanak hilerriaren barruan burutu ahal izango dituzte, hilerriko arduradunak aurrez baimena emanda. Hilerriko arduradunak erabakiko du lanak zein tokitan eta zein ordutan egin daitezkeen.

49. artikulua.

1. Obra bat egiteko baimena eman ondoren ezin izango da kanpoko itxura edo eraikuntza mota aldatu, lehenengo baimena eskuratzeko egindako izapide berdinak burututa baimen berri bat eskatu gabe.
2. Eraikuntzan egiten diren arau-hausteak indarrean dagoen legeriaren arabera zigortuko dira.
3. Hilobi edo panteoietako obrak egiteko baimena eman arren, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango horietan ari diren langile edo arduradunek jasan ditzaketen ezbehar, min edo kalteetan, ez eta bisitara joandako edonork edo ehorzketa eskubideen titularrek beren ondasunetan jasan ditzaketen kalteetan ere.

SEIGARREN KAPITULUA HILERRIKO LANGILERIA

50. artikulua.

Hilerriaren kudeaketa, zainketa eta zerbitzuak Udalak garatuko ditu zuzenean, edo legeak aurreikusitako zeharkako beste edozein bide erabiliz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan aurreikusi gabeko guztian, toki araubideari eta indarrean dagoen Osasun eta Hileta araudiak xedatutakoa beteko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa.

Xedapen hauek indarrean sartzen diren egunean hildako pertsonen, familien edo pertsona anitzen izenean dauden kontzesioak ordenantza honetan aurreikusitakoari egokitu beharko zaizkio.

Bigarrena.

Data hori baino lehen egindako bizien arteko edo izatezko transmisioak araupetuta geratu beharko dute urtebeteko epearen barruan, hilobi, panteoi edo kaperen erabilera egiaztatzen duen dokumentazioa Udaletxean aurkeztuta, beti ere, hirugarren batzuek horie gainean izan ditzaketen eskubideak salbu



utzita, baldin eta dagokion jurisdikzioaren aurrean egiazta baditzakete. Araupetzeko epe hori igaro ondoren, ehorzketa eskubidea iraungitzat jo daiteke, Araudi honetan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena.

Araudi hau indarrean sartzen denean, herentzia bidez edo beste titulu baten bidez, ehorzketa eskubidea jasotzeko eskubidea duten pertsonen eskubidearen transmisioa egitea eskatzen ez badute, urtebeteko epea izango dute horretarako, Araudi honen laugarren kapituluaren adierazitako baldintzetan. Epe hori igaro ondoren, eskaera egin ez bada, ehorzketa eskubidea galdutzat joko da eta Udalak hilobia bereganatuko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi hau indarrean sartzean indarririk gabe geratuko dira hilobien eta panteoien kontzesioa arautzeko aurrez hartu diren xedapen eta erabaki guztiak, horien arabera lortutako eskubideei kalterik eragin gabe.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezarritako moduan sartuko da indarrean.